



Otsailaren 15ean lan-bilera bat egin zen Lanbideren Gasteizko egoitzan, Europar Batasuneko Egitura Funtsekin batera (EGIF eta EGEF) finantzatutako EAeko programa eragileak osatzen dituzten proiektu eta programetan aukera-berdintasunaren printzipioa hobeto aplikatzeko modua aztertzeko.

Europar Batasuneko Egitura Funtsekin batera (EGIF eta EGEF) finantzatutako programa eragileak EAEn aplikatzen eta genero-berdintasuneko politikak ezarri eta horien segimendua egiten lan egiten duten 30 teknikari inguru joan ziren bilerara. Eusko Jaurlaritzako hainbat sail eta erakunde-tatik (Ekonomia eta Ogasun Saila; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila; Lanbide; Emakunde), foru-aldundietako hainbat sailetatik, garapen-agentzietatik, Lanbideren erakunde laguntzaileetatik (kaltetuenei laguntzeko, beharrian bereziak dituztenentzako lanerako prestakuntza emateko) etab. etorri ziren partaideak.

Lan-bilera hori aurretiaz egin zen jardunaldi baten jarraipena da. Izan ere, aipatutako erakundeetako teknikariek egindako galdeketa batzuetan oinarrituta, lana aukera-berdintasunaren ikuspegitik hobetzeko estrategia bat abiarazi da.

Helburua da aukera-berdintasunean sendotzeko hausnarketa-prozesua garatzea Europar Batasuneko Egitura Funtsekin batera (EGIF eta EGEF) finantzatutako programa eragileen garapenean, 2007-2013rako programa eragileen oraingo aldiari geratzen zaion eperako, baita 2014-2020ko hurrengo aldirako kontuan hartu beharko diren hobekuntzak aztertzea ere, Batzordean dagoeneko hasi baitira izango dituzten aplikazio-oinarriak eztabaidatzen.